



UDALBATZAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

Batzarra: Ez-Ohikoa
Deialdia: Lehena
Eguna: 2013/02/28
Ordua: 14.00 – 14.10
Lekua: Izurtzako Udalbatza aretoa

Bertaratuak:

LUIS JOSE BALLARIN ALBERDI jn. (BILDU)
NEREA ZARRABEITIA ASUETA. And. (BILDU)
PEDRO JOSE JAYO GOROSPE. jn. (BILDU)
MAIALEN SARASUA CENDOYA. And. (BILDU)
OSKAR ZARRABEITIA ASUETA. jn. (EAJ-PNV)
ETOR GORROÑO GEREDIAGA. jn. (EAJ-PNV)

Ez bertaratuak:

PAUL BAÑOS ONAINDIA jn. (BILDU)

Idazkaria: David Álvarez Martínez



Aztergaiak

- 1.- Aurreko Akta irakurri, eta ahala badagokio, onartzea.
- 2.- Udal kudeaketa eta alkatearen dekretuen kontu ematea.
- 3.- Herriko Tabernaren kontratuaren elkarren borondatezko uko egitea, hala badagokio, onartzea.
- 4.-Erreguak eta Galderak.

Esan-eginak eta erabakiak

Jarraian, Alkate jaunak, azaroaren 28ko 2568-1986 Errege Dekretu bidez onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma dagoela egiaztatzeari ekin dio, eta batzordea eratutzat jo da.

1.-Aurreko Akta irakurri, eta hala badagokio, onartzea. (2013/01/30).

Alkateak, batzarrari hasiera eman ondoren, batzordekideren batek aktaren testuari buruzko adierazpenik egin nahi ote duen galdetu du eta, inork egin ez duenez, akta bozkatu eta bertaratutako kide guztien aho batez onetsi da.

2.- Udal kudeaketa eta alkatearen dekretuen kontu ematea.

Idazkari jaunak hitza hartu du eta 11tik 21ra Dekretuen berri laburki eman du.

Zenbakia	Gaia
11	2012ko udal aurrekontuaren kitapena
12	Gastu onarpena
13	Gastu onarpena
14	Gastu onarpena
15	Udal altzariak erabiltzeko baimena ematea.
16	Lurzoru, lur-gain eta lur-azpia erabiltzeagatik tasaren kitapena.
17	Udal padroitik ofiziozko baja ematea
18	2013ko otsailaren 5eko, 612 Arau Foralari alegazioak egitea.
19	Obra baimena ematea.
20	Seme jaiotzagatik eskatutako diru laguntza ukatzea.
21	Gastu onarpena

Osoko bilkura jakinean ipini da.

3.- Herriko Tabernaren kontratuaren elkarren borondatezko uko egitea, hala badagokio, onartzea.

Gai zerrendaren hirugarren puntua landu aurretik, Sarasua Cendoya andreak hitza hartu du eta berak gaiaren lanketan parte hartuko ez duela esan du bere amak interesduna baita eta beraz, abstentzio zergatian egon baitaiteke.

Ondoren, Alkate jaunak hitza hartu du eta 2013ko otsailaren 25eko Ogasun Batzordearen proposamenaren berri eman du.

Zarrabeitia Asueta jaunak hitza hartu du eta esan du EAJtik Alkatetzari eskatu zaiola txosten bat non eta uko egitearen erabakia azaltzen den. Era berean, adierazi nahi du, era honetako erabakiak, gaur egun indarrean dauden beste kontratuekin ere amore eman beharko dela, baita bizilagunekin, elkarteekin, enprekin etab. ere

Honekin jarraituz, EAJk egiten duen ekarpena honako litzateke: ulertzen dugu familia askok pairatzen ari dituzten arazoak egoera ekonomikoagatik, baina esfortzu bat egin behar dugu haiek zaintzen, batez ere kide guztiak langabezian dauzkaten familiekin. Konkretuki Lanbideren-Euskal Enplegu Zerbitzuaren datuen arabera, Izurtzak daukan langabeziaren tasa %14,5 da, hau da 15 gizon eta 8 emakume dira lana bilatzen dutenak. 2013an ez da egon ordenantzen aldaketarik haien egoera kontuan hartzeko. Beraz EAJtik ordenantza fiskalen berrikuspena eskatzen da pertsona horien egoera jasotzen eta langabezian dauden pertsonentzako hobariak aurreikusi. Horretarako eskatzen da dagozkion komisioak egitea eta beste udalerrri batzuetan egin diren ordenantzak eredu hartzea

Era berean saioaren espedienteari atxiki nahi dio Lanbidetik lortutako datuak.

Alkate jaunak hitza hartu du eta elkarren amore ematea erabaki dela gauden egoera ekonomikoaren arrazoiarengatik. Taberna zabalik jarrai dezan kontratu bat egingo zaio, lizitazio berria esleitzen den bitartean.

Zarrabeitia jaunak egiten duen proposamenaren harira, hura aztertuko da baina lehenen jakin behar da herritarren egoera, orain arte inork ez baita hurbildu udaletxera inongo laguntzarik eskatzen.

Ez da beste inolako interbentziorik egon eta bertaratutako bozketa egin ondoren kideek gehiengoz (aldeko 3 boto- BILDU UT- eta 2 abstentzio – EAJ UT-), ondorengo onartu dute:

Lehena.- Herriko Tabernaren ustiapenari dagokion kontratuaren elkarren borondatezko uko egitea onartzea.

Bigarrena.- Interesdunari akordio honen berri ematea.

4.-Erreguak eta Galderak.

Alkate jaunak hitza hartu du eta orain arte Hirigintza Komisorik egin ez dela esan du. Dena den bere intentzioa ahalik eta arinen egitea dela esan du, seguruenik hurrengo astean, non eta aztertuko dugun egindako obra guztiak, adibidez jubilatuen, eta era berean arbizoleako urbanizazioaren gaia jorratu egingo da.

Zarrabeitia Asueta jaunak galdetu egin du noiz izango den.

Alkate jaunak erantzun dio eguna baieztatuko diola.

Zarrabeitia Asueta jaunak hitza hartu du eta bere galderak Hirigintza Komisionan lantzekoak direnez, hauek komisio horretara utziko ditu.

Horrenbestez, aztergai gehiago ez dagoenez, bilkura amaitutzat jotzen da, eta bertan aztertutakoa eta hartutako erabakiak jasotzeko honako akta hau egin dut, Alkate jaunaren oniritziarekin.

Idazkaria



O. E.
Alkatea



IZURTZA
UDALA